

ZENTROAREN ARAUDIA GRADU AMAIERAKO LANARI BURUZ

Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola

2022/2023 ikasturtea

Gradu Amaierako Lanen Batzordeak egina eta onartua

AURKIBIDEA

1.	HITZAURREA	3
2.	GRAL-REN IZAERA	3
3.	MATRIKULA ETA DEIALDIAK	4
4.	LANAREN GAIA HAUTATZEA	5
5.	GRAL ZUZENTZEA	5
6.	EBALUAZIO EPAIMAHAIA	5
7.	GRALa AURKEZTEA ETA DEFENTSA EGITEA	6
8.	GRAL-REN EBALUATZEA ETA KALIFIKAZIOA EMATEA	6
9.	GRADU AMAIERAKO LANARI BURUZKO BATZORDEA	7

1. HITZAURREA

Erizaintzako Gradu titulazioaren Ikasketa Plana Gradu Amaierako Lana (GRAL) deituriko ikasgai batekin amaitzen da. Dokumentu horren edukiak indarrean dagoen legedian oinarrituta dago:

- Estatu mailan: 1393/2007 Errege Dekretuak, urriaren 29koak, unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duenak, bere III. artikuluan Gradu amaierako lanaren (GRAL) eskakizunak ezartzen ditu.
- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV / EHU) mailan: UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK GRADU AMAIERAKO LANA EGITEARI ETA DEFENDATZEARI BURUZKO ARAUDIA, 2015eko martxoaren 12an Gobernu Batzordean onartutakoa.

Araudi hau informazio orokorra aurkezteko helburuarekin egin da eta Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako zuzentarau espezifikoak jasotzen ditu, GRALren administrazio-izapidetzeari, elaborazioari, defentsari eta kalifikazioari buruzkoak. Araudi honen edukiaren osagarri dira, hain zuzen, EHUren barruan indarrean dauden araudi eta prozedura guztiak.

2. GRAL-REN IZAERA

GRAL Erizaintzako Gradu titulua lortzeko derrigorrezko izaera duen ikasgaia da. 4. ikasturtean zehar egiten da eta 6 ECTS kredituko irakastorduak ditu.

GRAL ikasle bakoitzak egin beharreko proiektu edo lan indibidual bat da, zuzendari batek gainbegiratuta. Lan horretan, jasotako prestakuntza-edukiak integratu eta garatuko dira, bai eta Gradu irakaskuntza-aldian eskuratutako gaitasunak eta trebakuntzak ere. Era berean, GRALk honako orientazioa izan behar du: titulazioarekin lotutako zeharkako gaitasunak eta gaitasun espezifikoak aplikatzea; normalean ikaslearen ikasketa-alorreko datu esanguratsuen bilaketarako, kudeaketarako, antolaketarako eta interpretaziorako gaitasuna ematea eta izaera sozial, zientifiko, teknologiko edo etikoa duten gai garrantzitsuenen gaineko hausnarketa jasotzen duten iritziak ematea, horrek pentsamendu eta iritzi kritiko, logiko eta sortzailea susta dezan.

Gradu amaierako lana originala izan behar da; hots, dokumentu berri bat izan behar da, Erizaintzako praktikara orientatutako gai baten ulermen sakona agerian uzten duen irakurketa zabalean oinarritutakoa.

Ikuspegi horretan oinarrituta, gradu-amaierako bi lan-mota planteatzen dira:

- **Literaturaren azterketa kritikoko lana:** Literaturaren berrazterketa sakona da, ikasle bakoitzak bere praktika klinikoan edota esperientzia pertsonalean planteatutako interes profesionaleko hainbat galderari erantzun behar diona. Ikerketa enpirikoko lanetan, galdera horien erantzunak

populazioa osatzen duten subjektu edo elementuak zuzenean aztertuz lortzen dira, baina, kasu honetan, ikasleak literatura idatzian bilatu behar ditu erantzunak.

- **Hezkuntzako esku-hartze proiektuaren gaineko lana:** Nahiz eta lan honetan ere ikasle bakoitzak dagokion arloko literatura berrikusi behar duen, lanaren oinarria izango da hezkuntzako esku-hartze proiektu bat osatzea erizaintzako edozein arlotan (osasun-hezkuntzako programa, hezkuntzako proiektua profesionalentzat ...).

Lan mota bakoitzak ikasleak kontsultatu beharreko gida espezifikoak izango du.

GRAL Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titulartasuna egin duen pertsonarena izango da.

Plagioak; hots, norberarena balitz bezala beste pertsona batek egindako lana aurkeztea, edo testuak edo irudiak haien jatorria azaldu gabe kopiazea norberarenak balira bezala, zuzenean 0 kalifikazioa ekarriko du.

3. MATRIKULA ETA DEIALDIAK

GRALren matrikula Unibertsitateak ezarritako epe orokorraren barruan edo dagokion ikasturtean zehar egingo da, esleituta dituen kredituen araberako prezio publikoak ordainduz, eta behin GRALren defentsa egiteko eskatzen zaizkion baldintzak betetzen dituenean.

Edonola ere, GRALren matrikula formalizatu ahal izateko ikasketa-plana amaitzeko eskatzen diren ikasgai guztiak gaindituta izan beharko ditu edo horietan matrikulatuta egon beharko da.

GRALren matrikularako eskatutako hizkuntzak horren elaborazioa eta defentsa baldintzatuko ditu.

Matrikulak, ikasturte bakoitzean, bi deialdi ofizialetarako eskubidea emango du, zentroaren Web orrian argitaratutako egutegi akademikoan ezarritakoarekin bat etorritz. Ikasleek Karrera Amaierako deialdira aurkeztu ahalko dira, Gradu Irakaskuntzen Kudeaketa Araudian ezarritakoarekin bat etorritz eta, betiere, horretan ezarritako eskakizunak betetzen badituzte. Ikasketa Amaierako deialdirako eskaeran ezohiko deialdiko data adieraziko du ikasleak. Ezohiko deialdiaren aldaketaren eskaera Ikasketa Amaierako deialdia eskatzeko epe barruan egin beharko da.

4. LANAREN GAIA HAUTATZEA

Ikasleek ikuspuntu teoriko-praktiko batetik behar bezala justifikatutako proposamena aurkeztuko dute, Graduak eskatzen duen kompetentzien neurrikoa. Proposamena deialdi bakoitzerako data gakoak agirian ezarritako epean emango da eta bertan sartuta izango du honako hau:

- Lanaren izenburua.
- Egingo duen lan mota
- Lanaren helburua
- Kontzeptu-esparru laburra eta justifikazioa
- Proposamenaren bideragarritasuna

Irakasgaiaren arduradunak ikasle bakoitzari zuzendari bat esleituko die. Bi gai berdinei buruzko bi proposamen baino gehiago badaude edota lan mota ezberdinei ezarritako numerus clausus gainditzen bada, proposamena onartzeko espediente akademikoaren batez besteko nota kontuan hartuko da. Ezarritako epean argitaratuko da ikasle bakoitzarentzako zuzendari esleipena.

5. GRAL ZUZENTZEA

GRALa zentroan adskribaturiko edo dagokion Graduan irakasten duen saileko kide diren irakasleek zuzendu behar dute. GRALa pertsona batek baino gehiagok zuzendu ahal izango du.

Zuzendaria izango da ikasle bakoitzari GRALeko lanaren ezaugarriak adierazteko, lana garatzeko orientabideak ematen laguntzeko, eta ezarritako helburuak betetzeko zaindu eta lanaren jarraipena egiteko arduraduna. Lana entregatutakoan, zuzendariak txosten bat idatzi beharko du, defentsa egin aurretik, eta aipatutako txostena ikasleari eta epaimahaiari bidaliko die. Txosten hori ikaslearen espedientean gordeko da.

6. EBALUAZIO EPAIMAHAIIA

Ebaluazio Epaimahaiak Gradu Amaierako Lanen batzordeak ezartzen duen bezala konfiguratuko dira, matrikulatutako ikasle-kopuruaren eta garatutako GRAL ezberdinen gaien arabera. Konfigurazio horrek bermatu beharko du Ebaluazio Epaimahaiak bi hizkuntza ofizialetan egotea.

Epaimahai bakoitza hiru pertsonek eta ordezkari batek osatuko dute. Guztiak Graduko titulua irakasten duen zentroaren irakasleak izango dira.

Epaimahai bakoitzean Presidente bat, Batzordekide bat eta Idazkari bat egongo dira, irakaskuntza-kategoriaren eta antzintasunaren arabera ordenatuta eta ekintza guztietan parte hartuko dute.

7. GRALa AURKEZTEA ETA DEFENTSA EGITEA

Defentsako eskabidea egin ahalko da nahiz eta izena emandako kreditu guztiak gainditu ez.

GRALren matrikula egindakoan, ikasleek, argitaratutako datetan, amaierako PDFa Egela-ra igo, zuzendariari bidali eta GAUR-en defentsa eskatu beharko dute. Geroago, zuzendariak txosten bat egingo du eta defentsa egiteko eskaera baliozkotuko du.

GRALren defentsa ekitaldi publikoa da eta ikasle bakoitzak, bertan, egingo du. Krisialdi epidemiologiko baten ondorioz gelara etortzea ezinezkoa suertatzen bada, defentsa online burutuko da.

GRALren elaborazioa, aurkezpena eta defentsa Gradua irakasteko erabilitako edozein hizkuntzan egin dezake, tituluaren egiaztapen memorian ezarritakoaren arabera. Edonola ere, GRAL Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean egiteko eta defendatzeko eskubidea bermatuko da, matrikulan adieraztea beharrezkoa izanik.

Ikasle bakoitzak defentsarako gehienez 20 minutu izango ditu. Denbora horretan, bere GRALren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Ondoren, Epaimahaiako kideek planteatu ditzaketen galderei, argitzeei, oharrei eta iradokizunei erantzungo die, hori guztia 30 minutuko gehienezko denboran.

8. GRAL-REN EBALUATZEA ETA KALIFIKAZIOA EMATEA

Behin ikasleak aurkezpena egiten duenean eta zuzendariak egindako txostena ikusita, Epaimahaiak dagokion kalifikazioaren inguruan eztabaidatuko du, GRALren irakaskuntza gidan argitaratutako ebaluazio irizpideekin bat etorritik eta titulua egiaztatzeke memorian ezarritakoari egokituz.

Suspendituz gero, epaimahaiak txosten bat bidaliko dio ikasleari, lana nola hobetu dezakeen eta gero ebaluazioa nola egin dezakeen gomendatuz. Era berean, txosten horren kopia bat GRALren zuzendariari bidaliko zaio.

Kalifikazioa 0tik 10erako zenbakizko eskalaren arabera emango da, dezimal baten adierazpenarekin. Horri dagokion kalifikazio kualitatiboa gehituko zaio.

Ez aurkeztua (EA)

0 - 4,9: Ez gai (EG)

5,0 - 6,9: Gai (G)

7,0 - 8,9: Oso ondo (OO)

9,0 - 10: Bikain (B)

GRALren defentsarako eskaera egiteak esan nahi du lan hori dagokion epaimahaiaren aurrean aurkeztu beharko duela. Ikaslea ez bada joaten epaimahaiaren aurreko defentsa horretara behar bezalako arrazoi justifikaturik gabe, bere kalifikazioa Ez Gai izango da. GRALren defentsa eskatzen ez badu, dagokion deialdia Ez Aurkeztua kalifikazioa izango du.

9,0 kalifikazioa edo altuagoa lortu duten ikasleei “Ohorezko Matrikula” aipua eman ahalko zaie. Horren kopurua ezingo da ikasturte horri dagokion arlo horretan izena emandako ikasleen ehuneko bost baino handiagoa izan. Epaimahaiko kideek eta GRALren arduradunak proposatutako dituzten “Ohorezko Matrikula” hori jasotzeko hautagaiak.

GRALren amaierako kalifikazioen berrikuspena edo erreklamazioa Unibertsitateko ebaluazio-arloko Araudian aurreikusitakoarekin bat etorritik egingo dira, nahiz eta kasu horretan, Epaimahai bat denez, ebaluazioaren berrikuspena, lehen baten, Epaimahaiak berak egingo duen eta, ondokoetan, Zentroaren Erreklamazioetarako Batzordeak ebatziko duen. Horren ebazpena Unibertsitatearen Errektoretzan errekurritu ahalko da gorako errekurtsioaren bidez.

Artikulu honetako aurreko puntuetan ezarritako guztirako, Gradu Amaierako Lanaren Irakaskuntzako Gidaren Ebaluazioari dagokion atalean ezarritakoa aplikatuko da.

9. GRADU AMAIERAKO LANARI BURUZKO BATZORDEA

GRAL Batzordea tituluaren Zuzendaritzak lanaldi osoko dedikazioa duten irakasleen artean hautatutako 7 kidez osatuta dago. Batzorde honetan daude: zuzendariordea, Idazkari akademikoa, irakasgaiaren arduraduna, kudeaketa akademikoko arduraduna, gatzelaniazko lineako IIP bat (Irakaskuntzako eta Ikerkuntzako Pertsonala) eta euskarazko lineako IIP bat (Irakaskuntzako eta Ikerkuntzako Pertsonala).

Batzordearen eginkizunak honako hauek dira:

- Egin beharreko lan-motak eta ebaluatzeko irizpideak onartzea.
- Zentroaren GRALen araudia egitea, onartu dadin.
- Gradu amaierako lanean jarraipeneko kronograma baliozkotzea
- GRAL hautatzeko estrategiak proposatzea
- Irakasgaiaren arduradunak proposatutako orientazio/trebakuntza, jarraipena eta ebaluazioko jarduerak onartzea.
- Irakasgaiaren prozesua eta emaitzak ebaluatzea.
- Gradu Amaierako Lanaren prozedura kudeatzea.